

# AHTko aurrekontuak




JUAN MARI ARREGI

**H**ain gardentasun gutxi dago AHT-ren obretako aurrekontuaren bilakaeran, aldiro sortzen den ezein albiste txantxaz hartzen duela mundu guztiak. Eta martxan jartzeko dataekin zer esanik ez. Auzo lotsa ematen du gai horretan eskumena duen Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako sailburua ikustea orain hau esan eta gero hitza jaten. Baina Euskal Y-arena ez da barre egiteko kontu bat. Oso larria den zerbait da, bere sorreratik. “Estatu gai bat” bezala ikusia, sekula ez da zalantzan jarri nahi izan erakundeen partetik, are gutxiago eztabaida eta erreferendum baten aldarrikapenarekin bat egin.

Herritarren kontrako ekimen antisozial honen arduradunek, Madril eta Gasteizko gobernuek, 2006an aurrekontua egin zuten 175 kilometroko ibilbidea izango zuen obra batentzat: 4.178 milioi euro. Hortik %40 EAEko gobernu autonomoak ordainduko zuen kupoaren bidez, 118 milioi euro funts europarretatik aterako zituzten eta beste 2.500 milioi euro Espainiako Gobernuak jarriko zituen. Obren amaiera data ugariren ondoren, gaur egun uste da ez dela martxan jarriko 2023 urtera arte, eta kostua 2.000 milioi euro igo da, 6.000 milioiraino. Egunotan jakin da AHTren Gasteizko lurrazpiko sarbidea 150 milioi euro gehiago kostako zaigula, hasieran uste zena baina %20 gehiago –denera 872,2 milioi euro–. Eta oraingoz ezezagunak zaizkigu Donostia eta Bilboko geltokien gainkostuak.

Madrilek eta Gasteizek sekula ez dute utzi AHT bezalako azpiegitura baten inguruan eztabaida demokratikoa egiterik, baina gizarteak beharra dauka jakiteko, euroz euro, nola eta zergatik hari diren herritarren zergak gastatzen obra faraonikoan. Konparaziorako datu bat: Eibarko ospitale berriak 28 milioi euroko kostua izan du. ●



DANI BLANCO

## Mariano Ferrer, kontzientzia kritikoa

**GORKA BEREZIARTUA MITXELENA**

**H**itz hauekin esplikatu zuen duela urte batzuk zer zen Mariano Ferrerren lanaren funtsa kazetari donostiarra asko estimatzen ez zuen politikari batek: “Bere buruari ezarri dio herriaren kontzientzia kritikoa izateko zeregina”. Esaldiaz akordatu naiz bi arrazoiengatik: batetik, batzuetan arerioek deskalkifikatzeko intentzioz egiten duten erretratua bihurtzen delako norbaitek jaso dezakeen laudoriorik politena; eta bestetik, argi uzten duelako kazetaritzak, letra larriz egiten denean behintzat, lagun bezainbeste kontrario ekartzen ahal dizkizula. Baina bidearen amaieran, Mariano Ferrerren ahotsa itzali denean, partidu honetako edo hartako gorbatekin izandako xextren gainetik ondare bat geratzen da, bizi osoa ofizioarekin konprometituta pasa duen norbaitena.

Nafarroako Unibertsitatean eta Madrilen ikasi ondoren, New Yorken amaitu zuen formazio akademikoa Ferrerrek. “AEBetan gizarte aurreratu batean bizi izan nintzen eta hedabideek boterearen aurrean exigentzia demokratikozko jarrera zuten. Hona iristean, berriz, aurkitu nuen irrati bat ezin zuena informatu”, esplikatu zion Imanol Murua Uriari *Lo que dije y digo* liburuan. “Nire buruari esan nion modu batera edo bestera informatu egingo genuela”. Eta 1971ko goiz batez mikrofono aurrean jarri zen, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España* hartuta –ordu horretan ezin zuten beste egunkaririk erosi– eguneko berriak irakurtzen hasteko, estilo pertsonal imitazinean, albisteek zer dioten esplikatu, baita kontatu ez dutena edo kontatu nahi izan ez dutena ere. Ia 35 urtez egin zuen, goizero-goizero.

Tartean *Egin* egunkariaren sorreran parte hartu eta zuzendari izan zen, egunkaria hartzen joan zen ildoarekin desados, eta 1977an ETaren atentatu bat kritikatu idatzi zuen editorial bat medio, proiektua utzi zuen arte. 39 urterekin Herri Irratian zen berriz eta geroztik mikrofonotik bezainbeste hedatu zen Ferrerren ahotsa beste bideetatik: unibertsitatean, telebistan, Euskal Herriko hainbat hedabidetan jaso dituzte haren ekarpenak. Ahotsa, aurpegia eta luma jarri zituen Elkarriren 1994ko Bake Konferentzian edo 18/98 makroepaiketaren aurkako plataforman.

Banderarik gabe egin zuen, bandarik gabe, une bakoitzean kontzientziak diktatzen zionaren alboan jarriz. Jarrera etiko horrek ez dauka iraungitze-datarik, edozein modaren gainetik dago; gaurko eta biharko kazetarioi utzitako eredua da. ●